



AGINDUA, EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURETAKO SAILBURUARENA. HONEN BIDEZ, AURRETIKO KONTSULTAREN MENDE UZTEN DA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KLUSTERRAK DINAMIZATZEN DITUZTEN ANTOLAKUNDEEI LAGUNTZEKO PROGRAMA ERREGULATZEN DUEN AGINDUAREN PROIEKTUA.

Energia, Meategi eta Industria Administrazioako Zuzendaritzak xedapen orokor bat egiteko prozedura has dadila eskatu du, Euskal Autonomia Erkidegoko klusterrak dinamizatzen dituzten antolakundeei laguntzeko programa erregulatzeko xedez.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2016ko apirilaren 13ko Aginduak erregulatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko klusterrak dinamizatzen dituzten antolakundeei laguntzeko programa (2016ko maiatzaren 2ko EHAA, 81. zk.).

Egun, Industria Sailburuordetzak kudeatzen dituen laguntza-programak berrikusi eta berregituratu behar dira, enpresa-ehunduraren lehiakortasuna (ETEena batez ere) sustatzeari begira, laguntza gehien behar duten eta behar gehien dauzkaten sektoreetan dauden enpresen akzioak finantzatzuz, lehentasunezkoak diren eta Euskadiko RIS3 Espezializazio Estrategiaren programetan, 2017-2020 Industrializazio Planean eta hainbat eskumen-eremutan garrantzitsuak diren beste plan eta estrategia batzuetan finkatu diren jarduera-eremuak ahaztu gabe.

Klusterrak dinamizatzen dituzten antolakundeei dagokienez, enpresen arteko eta sektoreen arteko lankidetzak sustatu nahi da, Gobernuak bere eskumen-eremuetan dituen plan estrategikoekin lerrokatuta, enpresei lehiatzeko gutxieneko tamaina efizientera iristen lagunduz eta egokiak diren kontzentrazio edo aliantzei bide emanez.

Horrela, laguntza-programak klusterren inguruko proiektuak sustatzeko jarduerekin hobeto lerrokatze aldera, eta Agindu berriaren bidez, nahiz eta egungo Aginduan jasotzen den kluster-politika ia guztiari eusten zaion bertan, eskaerak baloratzeko irizpideak argitzeko aldaketa batzuk sartu dira, eta, batez ere, programaren irismena eta finantzazioa zabalduko dira. Horretarako, Energia, Meategi eta Industria Administrazioako Zuzendaritzak kudeatuko duen laguntza-tresna bakar baten barruan sartuko dira gaur egun klusterrak dinamizatzen dituzten antolakundeei Elkartzen programaren bidez ematen zaizkien nazioartekotzeko laguntzak. Nazioartekotzeko Zuzendaritzak gidatu du orain arte Elkartzen programa, eta laster indargabetzea espero da.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1. artikulua ezartzen duenez, kontsulta publikoa egingo da xedapen arautzaile baten proiektua egin aurretik, eskudun administrazioaren web-atariaren bitartez. Kontsulta horretan, etorkizuneko arauak gehien uki ditzakeen pertsonen eta erakundeen iritzia bilduko da.

Hori dela-eta, aurretiko kontsultaren izapidea bete nahi da Euskal Autonomia Erkidegoko klusterrak dinamizatzen dituzten antolakundeei laguntzeko programa erregulatuko duen xedapena egin baino lehen, arauak gehien uki ditzakeen herritarrek eta erakundeek parte hartu ahal izan dezaten eta ekarpenak egin ahal izan diezazkioten etorkizuneko arauari.

Bada, interesdun guztiei jakinarazi behar zaie Euskal Autonomia Erkidegoko klusterrak dinamizatzen dituzten antolakundeei laguntzeko programa erregulatzeko Agindu bat egiteko prozedura hasiko duela Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuak esleitzen dizkidan eskumenekin bat eginez, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoko klusterrak dinamizatzen dituzten antolakundeei laguntzeko programa erregulatzeko Agindua egiteko prozedura hasi aurretiko kontsulta www.euskadi.eus atarian argitaratu dadila agintzea.

Bigarrena.- Eragindako herritarrek eta erakundeek, hala nahi badute, baliodun hamar eguneko epean helarazi ahalko dituzte beren iritziak, kontsulta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Maria Aránzazu Tapia Otaegui
EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURETAKO SAILBURUA